

I. FORO TEMATIKOA BILBO METROPOLITARRAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN BERRIKUSPENEAN: BILBO METROPOLITARRAREN PAISAIK

Eguna: 2017/01/10

Tokia: Burtsa eraikina (Pilota kalea 10, 48013 Bilbo)

Iraupena: bi ordu eta erdi

Bertaratukoen kopurua: 30

Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak

Izena	Kargua
Vicente Reyes Martín jauna	Garraioak, Mugikortasuna, eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko diputatua
Ángel Anero Murga jauna	Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusia

Laguntza teknikoa

Izena	Enpresa
Ana Izquierdo Lejardi andrea	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Iñaki Romero Fernández de Larrea jauna	Paisaje Transversal
Aida López Urbaneja andrea	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Elsa Ibarra Albizu andrea	Paisaje Transversal

Aurkezpen instituzionala

Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko diputatu **Vicente Reyesek** jardunaldia hasi du. Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenari buruzko hitzaurrean adierazi duenez, lurraldearen antolamenduan aintzat hartu ohi den **ikuspegi teknikoa gainditzea da berrikuspen-prozesu honen helburua**. Horretarako, lurraldearekin

hartu-emanak dituzten hainbat gizarte-eragilek LPPren berrikuspenean parte hartzeko bidea jarri da. Eragile horien pertzepzioak, kontuan hartu beharreko aukera eta beharrei dagokienez, eta proposatuko diren neurriei begira, balio handia eranstean dio berrikuspen-prozesu teknikoari.

Horren ondoren adierazi du **berrikuspenaren fase guztiak hartzen dituen partaidetza-prozesu baten bidez antolatu dela gizarte-partaidetza**. Prozesu hori diagnostiko fasean hasten da (orain gauden fasean, alegia) eta aurrera egiteko proposamena planteatu arte iraungo du. Guztira, urtebete baino gehiagoko lana izango da, eta hainbat jarduera egingo dira interesdunen parte-hartze presentziala eta birtuala bideratzeko.

Gero zehaztu du **ildo horretan zenbait ekimen abian jarri direla jada**.

Esate baterako, **Lurralde Bizia erakusketa ibiltaria** eremu funtzionaleko udalerrietan barrena dabil, Bilbo Metropolitarraren LPPren berrikuspenari buruzko giltzarriak aurkezteko. Horrenbestez, herritarrek gaiari buruz dakitena sendotzen da, eta parte hartzeko aukerak ematen dira herritarren ekarpenak biltzeko jarritako postontziaren bitartez.

Bestalde, eremu funtzionaleko **udalekin bilerak** egin dira, eta elkarrizketa sakonak egiten ari gara zenbait erakunde sozial, ekonomiko eta akademikorekin, bai eta ingurumenaren alorreko erakunde batzuekin ere.

Azpitarratu du lehen hilabete hauetan prozesua ezagutarazteko ahalegin handia egin dela. Izan ere, **askotariko komunikazio-ekintzak abian jarri dira** prentsan, irratan eta telebistan; halaber, sare sozialen bidez sendotu da ekimenen hedapena, eta erreferentziazko webgune bat jarri da, LPP berrikusteko prozesuari eta harekin lotutako partaidetza-prozesuari buruzko informazio guztia biltzen duena.

Horren ostean azpitarratu du **datozen hilabeteetan eztabaidarako beste gune batzuk zabalduko dituztela, lantaldeak idatzitako lehen diagnostiko-proposamenak hizpide hartuta**. Azaldu du orain hasten diren foro tematikoak diagnostiko-faseari dagozkiola. Foro horien helburua da LPPren giltzarritzako eduki batzuen berri ematea eta haien inguruan gizarte-partaidetza sustatzea. Ondoren azaldu du **herritar guztientzat zabalik daudela foroak, eta saio bakoitzak bi zati izango dituela**: alde batetik, aditu batek **aurkezpena** egingo du, gaia testuinguruan jartzeko eta atariko egiteko, eta bestetik, **partaidetza-dinamika** baliatuko da, saioan parte hartuko duten pertsonen iradokizunak eta iritziak biltzeko.

Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko diputatuak azaldu duenez, lau foro horiek 2017ko urtarrilean eta otsailean egingo dira, gai hauek jorratzeko:

Gaurkoak **Bilbo metropolitarraren paisaiak** ditu hizpide, kolaboratzaile hauen laguntzarekin: Ander de la Fuente, Unesco Katedrakoa, eta Amaia Apraiz, Ikusmira Ondarea enpresakoa. Bi aditu horiek laburbilduko dituzte paisaiak eta ondareaz hitz egiten dugunean aintzat hartzen diren alderdiak, eta lurralde-antolamenduan gai horiek jorratzean garrantzi handia duten kontuak.

Hurrengo saioa 24an egingo da, **Bilbo metropolitarraren mugikortasun-eredua** hizpide hartuta. Saio horretan kolaboratzaile hauek parte hartuko dute: Enrique Antolín, Ekologistak Martxan erakundeko kidea, eta Josu Ramírez, Leber enpresakoa. Bi aditu horien aurkezpenetan, bizikleten zein oinezkoen mugikortasuna eta mugikortasun kolektiboa aztertuko dituzte.

Otsailaren 7ko saioan, berriz, **integrazioa eta birsorkuntza hiri-eraldaketa prozesuetan** izango da aztergai. Saio horretan Fernando Hevia, Betsaide elkartekoa, eta Arantxa Quintana, HIKA Arkitekturakoa, jardungo dira hiriak birgaitzeko prozesuen alderdi sozialak hizpide hartuta: bizitokien segregazioa, gentrifikazioa, hiri-pobrezia, migrazio-prozesuak eta eremu degradatuetako kokaguneak...

Amaitzeko, otsailaren 14an, **lurralde-antolamendurako ikuspegi berriak –lurralde inklusiboa, euskara eta osasuna–** jorratuko dituzte kolaboratzaile hauek: Helena Ortiz de Lejarazu, Redkuorum enpresakoa; Unai Fernández de Betoño, Euskal Herriko Unibertsitatekoa; eta Patxi Cirarda, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoa.

Hurrengo saioak aipatu ostean, iragarri du asteartetan egingo direla, 18:00etatik 20:30era bitartean, areto berean.

Amaitzeko, **zinez eskertu du haiekin batera hausnartzeari denbora ematea**, eta adierazi du saioak baliagarriak izatea espero duela, bai lurralde-antolamenduaren alorreko erabakiak hartzean kontuan izan behar diren alderdi oso garrantzitsuei buruz **eztabaida interesgarriak sortzeko**, bai Bilbo metropolitarrarentzat lurralde-eredu berri bat sortzen lagunduko duten **askotariko iritzi eta ikuspegiak trukatzeari bultzatzeko**.

Hasierako aurkezpenaren ondoren, saioari jarraipena emate aldera, **#Lurraldebizia bideoa proiektatu da**; Bilbo metropolitarraren LPPren berrikuspenak dakarren guztia laburbiltzen duen bideoa, alegia.

Ángel Anerok, Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusiak, hartu du hitza, Bilbo metropolitarraren LPPren berrikuspen-prozesuaren diagnostiko-faseari dagokion saioa aurkezteko.

Azaldu du Bilbo metropolitarraren eremu funtzionalean dauden **paisaiei buruzko elkarrizketa eta trukea** sortzea dela helburua. Paisaiak aztertzeke baliatu ohi diren ikuspegiak (ia beti paisaia naturalaren ingurukoak) zabaltze aldera, **bestelako paisaien azterketan –kultura, industria eta abar aintzat hartuta– esperientzia eta ezagutza handia duten bi pertsona gonbidatu dituzte saioan** parte hartzera, hitzaldi horiek aberasgarriak izan daitezen, gero planteatuko diren dinamikei begira.

Horrenbestez, adierazi du pertsona horien hitzaldien ondoren taldeka parte hartzeko dinamika bat egingo dela, eremu funtzionaleko paisaia garrantzitsuenak identifikatzea eta balioestea helburu hartuta. Inguruko adituek aurkezpena egin ostean, dinamika azalduko du.

Xehetasun horien berri eman ondoren, hizlariak aurkeztu ditu:

Ander de la Fuente Arana, arkitekturan doktorea (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta hirigilea da. Paisaia gizatiartuen alorrean dihardu.

Gaur egun, Proiektuetako irakasle elkartua da Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan. Halaber, Eraikitako Ondareari buruzko Ikertaldeko kidea da, bai eta Cultural Landscapes and Heritage UNESCO Katedrako kidea ere.

2010ean hasita, Euskal Herriko Unibertsitateko Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitze, Zaharberitze eta Kudeaketa master ofizialeko irakaslea da; eraikitako ondarea balioesteko,

katalogatzeko eta babesteko hainbat proiekturen garapenean dihardu, bai eta paisaiaren antolaketan ere.

Amaia Apraiz Sahagún, Ikusmira Ondarea enpresako kidea, Artearen Historian doktorea (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta industria-ondarean espezialista da. Arlo horretan lanean ari da 1997an hasita.

2001az geroztik Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteko (AVPIO/IOHLEE) kidea da, eta hainbat lanetan jardun da erakunde horrekin lankidetzan. Jarduera horien artean gailentzen dira, besteak beste, EAEko Industria Ondarearen Inbentarioa, Industria Ondarearen Katalogoa Bilboko HAPOrako eta Zorrotzaurreko industria-arkitekturaren azterketa historikoa eta ondarezkoa.

2012az geroztik Urbs et Ager taldeko kidea da. Talde hori ondarean oinarritutako plangintza-txostenak egiten diharduten eragileen diziplinarreko sarea da.

Gaur egun, paisaiaren ekintza-planak egiten dihardu Bizkaiko zenbait udalerritarako, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondarearen Europako Jardunaldiak koordinatzeaz arduratzen da 2015az geroztik.

Adituen aurkezpenak

Amaia Apraiz Sahagún Paisaiari buruzko Foroari eskertu dio gonbidatu izana, bai eta arlo horretan aspalditik lanean ari diren profesionalak kontuan hartu izana ere. Ondarearen aldeko apustua zentzu zabalean egiteak, berariazko kultura-ondareak, industria-ondareak eta paisaiak planeamenduaren kontzeptuan duten garrantzia balioetsi du. Izan ere, arlo hori jorratzen du: ondarean oinarritutako plangintza. Adierazi du Bilbo metropolitarraren paisaiak erreferentziazko gune bihurtzea duela helburu, lanbide berean diharduten hainbat lankidek bezala.

Hitzaldian esan duenez, industria gogora ekartzen dugunean “Bilboko itsasadarra da, gure iritziz, iraganeko eta gaur egungo gure bereizgarriak hobekien adierazten dituen paisaia”. Itsasadarra paisaia horren ardatz nagusietako bat dela adierazi du, baina industria-paisaiak itsasadarretik haratago daudela ere zehaztu du. Ondarearen eta plangintzaren arteko loturak, batez ere industrian, begi bistakoak direla esan ostean, garapen hori batzuetan hiri-garapenerako oztopotzat hartu dela adierazi du.

Hitzaurrean hala esan du: “kontzeptu horiek guztiak hizpide izango ditugu, toki estrategiko gisa eta aukerak ematen dituzten toki gisa ikusita; izan ere, hondakinak soilik dauden tokiak dirudite, baina gure ikuspegia noiz aldatuko den zain daude”.

Horren ostean, ondarearen kontzeptuari eta paisaiari buruz hitz egin du, eta adibide-kateak baliatu ditu. Aurkezpenean adierazi duenez “kontzeptu horrek bilakaera handia izan du; ondare historiko artistikoarekin eta monumentaltasunarekin hasi zen, eta bereizgarri hori gailendu zen XIX. mendean eta XX. mende osoan”. Alabaina, azaldu du, industria-ondarearen kontzeptua sortu zenean “antzinatasun” horrek talka egin zuen, desagertzen hasi zen, eta hitz berriak sartu ziren: teknikoa, teknologikoa... Zenbait adibide baliatuta azaldu du eraikin soilak ziren egiturak lurraldean txertatutako egitura bihurtu zirela.

Bilakaera hori azaldu du, ondare immaterialaren kontzeptua eta hura babestearen premia sortu arte (UNESCO, 2003). Horrenbestez, jakintzak, ofizioak, teknikak eta abar biltzeari ekin zitzaion,

eta, azken finean, lanaren memoria eratu zen. Bilakaera horrek kontzeptu berri bat sortu zuen: ondarearen kultura, eskubideak eta herritarren parte-hartzea (FARO, 2005). Une horretan, adierazi du hizlariak, "herritarren parte-hartzea ere plangintzan sartu zen, bai eta pertsonen, tokiaren eta denboreko arteko interakzioak ere". Orobat, industria-ondarean sartutako kontzeptu berriak azaldu ditu, eta "tokiak ez diren ondare natural" batzuk aipatu ditu, adibide gisa; esate baterako, Muskizgoa.

Azalpenean zoom egin eta Bilbo metropolitarraren paisaia hartu du ardatz. Oso osagai adierazgarriak dituela esan ostean, azaldu du paisaia existitzeko pertzepzioa ezinbestekoa dela **Paisaiak eta ondareak plangintzan duten eragina mugatzen duten 5 faseak azaldu ditu:** aurkikuntza, azterketa, bistaratzea, sorkuntza eta ekarpena. Gaur egun zer unetan gauden galdetzeko egokiera baliatu du, eta fase hori sakonago aztertzeari ekin dio.

Aurkikuntza-fasean, komunitate zientifikoak ikertzen eta katalogatzen diharduen unean, Bilbo metropolitarran 175 elementu garrantzitsu aitortu dira, monumentu izan daitezkeenak, bai eta 15 industria-paisaia garrantzitsu ere, eta zenbait adibide eman ditu. Besteak beste, trenbideen garrantzia azpimarratu du, gure paisaia trenbidez josita baitago.

Azterketa-fasean, hasieran biztanle multzo batek eta gero biztanleriak oro har "paisaiaren balioak onartu eta partekatu ditu". Azaldu du hainbat dokumentu eta argitalpen sortu direla, arlo horri dagokion "Itun Zaharra" osatzen dutenak, eta gero osatu egin direla, paisaiari buruzko kapitulu bereziak erantsita. Halaber, azaldu digu garai horretan industria-ondareko monumentuen lehen aitortpenak hasi direla, eta Elorrietako ponpa-etxea izan dela lehena.

Bistaratze-fasea garrantzitsua dela adierazi du. Nabarmendu du herritarrek ondarea identifikatu behar dutela, eta norberaren ondasuntzat hartu. Orobat, testuingurutik ateratzeak arriskuak sortzen dituela adierazi du, eta Etxebarrietako fabrikaren tximinia jarri du adibide gisa, tokiaren zentzua ez duelako erakusten. Beste arrisku batzuk ere aipatu ditu, izaera eta nortasuna galtzeari eta ez erabiltzeari erreparatuta, eta hainbat adibide eman ditu, hala nola San Luis meategia, Alondegia, Labe Garaia eta Burtzeñako zubia.

Sorkuntza- eta ekarpen-fasean Gasolinoaz azaldu du: itsasontzi soil bat baino gehiago da, eta faktore guztien bateratzea gogorarazten du. Amaitzeko hala adierazi du: "fase horretan gaude, kontaketa global bat egitea falta da; horretarako, Euskadiko teknikaren museo bat sor daiteke, paisaia ondarearen zatitzat hartuko duena". Orobat, **ekarpena** dela eta, esan du paisaia kontuan hartzea lagungarria dela udalerriz gaindiko eskalan pentsatzeko, eta ikuspegia zabaltzen ikasi behar dugula. Erne ibili behar dugula esan digu, espazio homogeneoen bidez toki mundializatuak, hutsalduak eta "urbanizatuak" ez sortzeko. Arrisku horri aurre egiteko, "berariazko nortasuna duten espazioak ezaugarritu behar dira, tokiaren zentzua landuz".

Amaitzeko adierazi du birsortze geldo espontaneoak bilatzea hobe dela, eta horretara jo behar dugula. Halaber, berriro gogora ekarri digu planeamenduak gaur egungo ondareari eusteko aukera ematen duela. Adibide gisa, Turin erakutsi du argazki batean: hiri horretan "itxaron zuten, ez ziren zuriuneen beldur, eta ondarea errespetatu zuten."

Ana Izquiero Lejardik, Inguru ingeniari-tza-enpresako kideak, Amaia Apraizen ekarpenak eskertu ditu, eta hurrengo hizlariari eman dio hitza.

Ander de la Fuente Aranak Amaia Apraizen ondoren hitz egin du. Aurkezpenaren hasieran,

eskerrak eman ditu saiora gonbidatu dutelako, eta Amaia Apraizek azaltutakoa osatuko duela adierazi du, hainbat alderditan bat egiten baitute.

Lehenik eta behin paisaiaren kontzeptuak izan dituen aldaketak aipatu ditu, eta gerora **Paisaiaren Europako Hitzarmenaren** bitartez sortu den definizio kanonikoa eman du, puntuz puntu. "Kontzeptuari buruzko zonifikazio fisiko bat eta beste zonifikazio kontzeptual bat" egitea proposatu du, dagozkigun arauak noraino iristen diren jakiteko. Gero, azterketa sistemiko bat egitea proposatu du "bertaratuek ekarpen ahalik eta handiena egin dezaten, mugarik gabe, elementu bereizgarriak ez ezik **izaera berezia duten espazioak** ere bilatzeko, espazio horiek lotuta paisaiaren identitatea eratze aldera".

Horren ostean, Eusko Jaurlaritzaren 90/2014 Dekretua eta **paisaia-interes bereziko eremuak** aipatu ditu. Interesgarriak direla adierazi du; izan ere, "espazio degradatuak dira, batez ere, eta norberaren imaginarioan integratuta daude". Ondoren, hausnarketa egitera bultzatu gaitu, paisaiari zer ikuspegitik begiratzeko aukerak ditugun kontuan hartuta. Geografoek hiru esparrutan multzokatzeko joera izan dute: memoriaren paisaia, irudiarena eta sozioekonomikoa.

Azalpen horren ildotik, Bilbo metropolitarraren barruan izaera berezia duten eremuak definitzeko aukera dagoela azaldu du. Bilbori buruzko historia labur baten bitartez azaldu du: "Itsasadarrak, meatzaritzaren presioak... herritar guztien izaeran eragin dute, eta paisaiaren eraldaketa bultzatu dute, hala nola Neguri aldean". Adibide horrekin jarraituz, memoriaren ikuspegitik bi elementu hauek identifika daitezke: "aztarnak eta istorioak". Horren haritik, zenbait bitxikeria kontatu dizkigu, Horacio Etxebarrieta, Punta Begoñako galerietako eragile nagusia, eta Ricardo Bastida, galeriak eraiki zituen arkitektoa, hizpide hartuta. Baina, batez ere, **kolektibo sozialaren memoria** azpimarratu du; hau da, herritarren testigantzak biltzen dituzten kontaketak. Azpimarratu du kontaketa horiek aktibatu eta elkarlotu behar direla, izaera berezia duten paisaiak eratze eta zentzua emateko.

Gero, interes bereziko eremuetan esku hartu duten pertsonaiei buruzko istorioen adibideak eman dizkigu, eta kontaketa bateratuaren eraikuntzarekin duten lotura azaldu du. Bestalde, kontaketa batzuek adibide negatiboak gogora ekartzen dizkigutenez, zalantza sortzen digutela adierazi du: aztarna horiek ezabatu behar al dira?

Azalpen horren ostean, aurkezpenaren hariari heldu dio berriro, "**aurreko kontaketak identifikatzeko sozializazioa**" hizpide hartuta, esanahia duen memoria eraikitze aldera. Adierazi du bi zati dituela –memoria sozial integratua eta sozialki gaitzetsitako memoria– eta biak ere gure izaeraren osagai direla.

Gero, **paisaia irudi gisa** gogora ekarri du. Horretarako, **Lynch** eta hiriari buruz duen irudia baliatu ditu, elementu hauen arteko interakzioak kontuan hartuta: hautematen dugun errealitatea, gure begiradak zeharkatzen duen kultura eta inguruan dugun natura. Azpimarratu duenez, "irudian elementu horiek bilatu behar ditugu, eta altxorren plano moduko bat eraikitzen ahalegindu" etorkizunari begira zer nahi dugun azaltzeko. Azaldu du elkarlotuta dauden elementuak marraztu behar direla saioan, planeamenduari, ahulguneei eta garapen-aukerei buruzko erabakiak hartzean eragina izango dutenak kontuan hartuta.

Amaitzeko, **Punta Begoñako proiektuaren kudeaketa-ardatz nagusiak** azaldu ditu, izaera berezia duen espazioa den aldetik. Kudeaketa-ardatzak honako arlo hauekin lotuta daude: baliabide naturalez gozatzea (Uribe Kostako LPPn jasota dago), ardatz kultural bat garatzea,

alde zurretik dauden espazioak berritzea eta hezkuntza.

Bukaeran, bertaratuei esan die haiek dutela hitza. Joaquín Sabaté ekarri du gogora, eta haren hitzak erabili ditu sozializazioa zertan oinarritzen den azaltzeko: zuek (bertaratuek) zer diozuen interpretatzea, dokumentu tekniko batean (adibidez, LPPn) jaso ahal izateko.

Ana Izquiero Lejardik eskerrak eman dizkie berriro bi hizlariari. Azaldu du biak geratuko direla saioan, eta edozein zalantza edo galdera sortuz gero argitzeko prest egongo direla. Orobat, **Aida Lopezek** (Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental), **Iñaki Romerok** (Paisaje Transversal) eta aurkezleak berak azalduko dituzten lan-dinamiken aurkezpena egin du.

Lan-dinamika

Lan-dinamikarako, bertaratu diren 27 pertsonak lau lantaldean banatu dira. Lantalde bakoitzari Bilbo metropolitarraren A1 planoa eta marrazketa-materialak (eranskailuak eta errotuladoreak) eman zaizkio, hiru ardatz nagusi hauek lantzeko:

- **Toki estimatuenak.** Ingurumenaren, kulturaren eta ondarearen aldetik interesa duten guneak. Herriarrek paisaia asko estimatzen dituzten eremuak edo elementuak, edo etorkizunari begira kokapen estrategikoa dutenak.
- **Paisaiari buruzko gatazkak.** Paisaia eta ondarean eragina duten aldaketa eta arazoak identifikatzea. Gaur egungo paisaiak balioa galtzea edo degradatzea ekar dezaketen arazoak dauden eremuak edo paisaia-elementuak, edo etorkizunari begira aldaketak eta arriskuak izango dituztenak.
- **Erreferente bisualak:** Balioa duten elementuen bista nagusiak.

Lantaldeek ateratako ondorioen aurkezpena

Taldean 40 minutu inguruko lana egin ostean, lantalde bakoitzeko ordezkariak lan-dinamiketan ateratako ondorio nagusiak azalduko ditu.

Lehenengo ordezkaria, Mari Ángeles, hasi da, Lemoizko zentrala aipatuz, eremu bisual gatazkatsua den aldetik. Beste erreferente bisual batzuk ere hizpidera ekarri ditu: *Armintza*, *Sopelako* kostaldea eta *Galea*. *Berangon* merkataritza-gune bat eraiki ondoren sortutako paisaia-gatazka azpimarratu du. Halaber, *Erandioko* iparraldea aipatu du, eremu estimatua den aldetik, bai itxuragatik, bai landa-izaera duelako. Hegoaldean, berriz, *Asuako* portuaren kokagunea nabarmendu du, haren garrantzi historikoa eta gaur egun hondatuta dagoela kontuan hartuta. Gero, Bilboko udalerrian, *Errekalde*, *Bilbo Zaharra* eta *Zorrotzaurre* aipatu ditu, paisaia-gatazkak dituztela iritzita. Amaitzeko, *Txorierra* estimatzekoa dela adierazi du, landa-izaera duelako, eta arriskuan dagoela erantsi du, Bilbotik gertu dagoenez hirigintza-presio handia baitu.

Bigarren ordezkaria, Koldo, Muskizen bizi da, eta petrolio-findegia ikusizko inpaktua

azpimarratu du. Enpresa horren itxura udalerriaren marka-irudi bihurtu dela adierazi du. Beraz, inpaktu handi hori zuzendu behar dela esan du, lurraldea marka-irudi berri batean oinarrituta garatzeko, erreferentziazko beste sinbolo batzuk hartuta, eta tokiko identitatearen arabera, gaur egun hutsalduta baitago. Horren ostean, itsasadarraren inguruan urak har ditzakeen eremuak aipatu ditu, gatazka-eremuak diren aldetik, eta *Muskizgo* petrolio-findegia dagoen uholde-lautadarekin parekatu du. Bestalde, eremu estimatuen artean, Itsaslurreko labarrak aipatu ditu, balio natural eta historiko handia dutelako, bai eta Malmasingo kastroa ere.

Ondoren Meatzaldera itzuli da; garai batean Muskizen pairatu zuten "monolaborantza" aipatu du, eta *Ortuella*, *Abanto* eta inguruetan pairatzen dituzten ondorioak gogora ekarri ditu. Halaber, Arrigorriagako harrobian egin diren konponketak nahikoak ez direla esan du.

Erreferente bisual diren eremuen artean, *Artxanda* aipatu du, bai eta hiriaren ikuspegia itsasadarretik begiratuta. Iberdrola dorrearen inpaktu negatiboa ere gogorarazi du; eta, amaitzeko, Malmasingo kastroa aipatu du.

Hirugarren ordezkariak, Alexek, toki estimatuenak gogora ekarri ditu: *Lemoiz* eta *Muskiz* aipatu ditu, industria-ondare positiboak direla iritzita, eta espazio horien etorkizuneko kudeaketak izango duen garrantzia azaldu du. Bestalde, *Bilboko kanpoaldea* eta auzo garaiak aipatu ditu, babestu beharreko tokiak direlako, haien historiagatik eta bertan jende asko bizi delako. Amaitzeko, *Gorlizko* badia eta biotopo babestua aipatu ditu, espazio estimagarriak direla iritzita.

Gatazken atalean *Getxo-Barrika* hiri-eremu jarraitua aipatu du. Arriskuak daude lurzoru asko erabili delako eta inguru hori gero eta artifizialagoa delako. Eremu horri begira jarraituz, *Andra Mari* arnasbide bakarra dela adierazi du: Getxori geratzen zaion landa-eremua da, eta azpimarratu du urbanizatuko ote duten beldur dela jendea. Bestalde, *Etxebarri-Basauri* korridorea ere aipatu du. Eremu hori desindustrializatzen ari denez, pabiloi asko hutsik geratzen ari dira, eta ez dakite zertarako erabili orubeak. Esan du ez dela ezinbestekoa eraikitzea; izan ere, bestelako konponbideak erakutsi dituzten hainbat esperientzia daude, aldi baterako baliagarriak direnak, eta toki horiek beste aukera bat izan dezakete. Hala eta guztiz ere, espazio horiek arriskuan daudela azpimarratu du, abandonatuta gera daitezkeelako. Zorrotza inguruari buruz gauza bera esan du. Gatazkei erreparatzen jarraituz, kanpoaldeko auzoak aipatu ditu: isolatuta geratu dira, hainbat alorrei erreparatuta, eta auzo horien beharrei ez zaie erantzun.

Amaitzeko, aurretik hitz egin duten kide eta ordezkariak aipatutako zenbait erreferente bisual gogora ekarri ditu. Besteak beste, *Ganekogorta* nabarmendu du, bista handiak dituen mendia den aldetik. Hala eta guztiz ere, alderdi negatiboei erreparatuta, adierazi du bertan haize-parke bat jartzeko proiektuari buruz hitz egin dela orain dela gutxi, eta LPPk bista horiek babesteko ahalegina egin behar duela.

Azkenik, **laugarren ordezkariak, Fernando Heviak,** aurkezpena hasi du oinarrian dagoen gaiari buruz eztabaidatu dutela esanez: paisaia identifikagarri bat sortzeko lagungarriak izan daitezkeen lurralde-plangintzako neurriak. Adierazi du orain arte ez direla nahikoa babestu paisaien eta lurraldeen balio horiek, eta paisaia degradatzea ere bideratu dela.

Orain arte ikusi dugun hazkunde sakabanatua kanpoaldera bideratu dela esan du, eta ertzetako eremu periferikoak degradatu direla. Bestalde, hirigintzako baliabideak periferia horretara berbideratu direnean, barruko hiri-bilbeen degradazioa bultzatu da, abandonatuta geratu baitira.

Hori guztia dela eta, ertzetako toki gatazkatsuetan lan egitea planteatu dute. Planeamenduak aintzat hartu behar ditu, besteak beste, periferiako landa-eremua, barruko ertz periferikoa eta ibaien ibilguak, hiri-garapenak elementu horiek inbaditu baititu.

Gero muturreko adibide kritikoak jarri ditu: *Txorierrriak* Bilboko itsasadarraren atzealdea dirudi, eta *Derioko* lur-berdinketa paisaiaren aurkako eraso garbia da. Horren ondoren, barrualdean abagune ona dago: *Lamiakoko* araztegia. Erresistentziaren adibide gisa, *Larrabetzu* aipatu du. Udalerri horrek oso garapen orekatua izan du. Paisaiaren balioak eta landa-ingurunearekiko loturak babestu dira, eta horri esker, biztanleak erakarri ditu.

Ondorioak

Planeamenduaren ikuspegi partekatua dago: industrian eta erauzketan erabilitako eremuak toki degradatuak dira eta hobetzeko premia dute, ertzetako auzoak ere premian daude, eta nolabaiteko desdoitzea eragiten dute. Bestalde, aurreko plana kritikatu da. Plan horren eraginez, eskuinaldean eta Txorierrrian intentsitate txikiko eredia izan dute. Alderdi positiboak erreparatuta, kostaldeko eta barrualdeko natura-eremuak gailendu dira, batez ere. Bistei dagokienez, nabarmendu beharreko gune garrantzitsu batzuk aipatu dira: Nerbioi ibaiaren arroa eta kostaldeko bistak.

Galderak

Parte-hartzaile batek adierazi du orain arte paisaia aldaketa puntual batzuen bidez sartu dela pixkanaka LPPn, baina paisaia LPPtik lantzea ere planteatu daitekeela; hau da, LPPrekin batera katalogoa eta "gidalerroak" lantzea. Proposamen hori luzatu ostean, nola egitura daitekeen galdetu du.

Iñaki Romerok erantzun dio paisaia aintzat hartzeko lanean ari direla gaur egun, indarrean dagoen legedian ezarritakoa oinarri hartuta. Halaber, azaldu du katalogoa oso konplexua dela, prozedurari dagokionez, baina arlo hori kontuan hartzen ari direla.